

Erasmus ikasleak itzuli egin dira beren herrialdeetara, ikastaro bat eginda, lau hilabetekoa

2008/02/06

Erasmus programako ikasleak itzuli dira dagoeneko beren herrialdeetara, HUHEZIn ikastaro bat eginda, lau hilabetekoa. Guztira **bederatzi ikasle** izan dira, zazpi **Irakasle ikasketak** egiten, eta bi **Ikus-entzunezko Komunikazioa**.

Euretariko inork ez zekien ez euskararik, ez eta gaztelaniarik ere. Horregatik, **ingeleza** izan dute **komunikazio hizkuntza**. Lau ikasgaitan gure ikasleekin batera aritu dira, eta Eskoriatzan izan diren bitartean, Erasmus ikasle bakoitzak hemengo ikasle bat izan du lagun, laguntzeko hemen errazago integratzen.

Irakasle ikasketetako ikasleek Arizmendi ikastolan egin dituzte praktikak. Ikus-entzunezko Komunikaziokoak, ostera, **Goiena Komunikazio Zerbitzuetan**. Fakultatean izan diren bitartean, **Julia Barnes** irakaslea izan dute tutore.

Hauek izan dira gurekin egondako ikasleak:

- **Seda Eyyupoglu**. Irakasle ikasketak egiten ari da Mustafa Kemal Unibertsitatean. Hatay hiritik etorri zen, Turkiako hegoaldean.
- **Filiz Karadagli**. Irakasle ikasketak egiten ari da Mustafa Kemal Unibertsitatean. Hatay hiritik etorri zen, Turkiako hegoaldean.
- **Renske Opheikens**. Irakasle ikasketak egiten ari da Hanze University Groningen Unibertsitatean. Groningen hiritik etorri zen, Herberhetako iparraldean.
- **Kira Evve**. Komunikazioa-Kazetaritza ikasten ari da Tallin Unibertsitatean. Tallin hiritik etorri zen, Estoniako hiriburuan.
- **Amarens de Jong**. Komunikazioa ikasten ari da Windesheim Unibertsitatean. Zwolle hiritik etorri zen, Herberhetako erdialdean.
- **Stephanie Valkenborgh**. Irakasle ikasketak egiten ari da Katholieke Hogeschool Limburg Unibertsitatean. Hasselt hiritik etorri zen, Flandes, Belgikatik.
- **Liesbeth Van Moll**. Irakasle ikasketak egiten ari da Katholieke Hogeschool Limburg Unibertsitatean. Hasselt hiritik etorri zen, Flandes, Belgikatik.
- **Kathleen Janssen**. Irakasle ikasketak egiten ari da Katholieke Hogeschool Limburg Unibertsitatean. Hasselt hiritik etorri zen, Flandes, Belgikatik.
- **Tara Thoonen**. Irakasle ikasketak egiten ari da Katholieke Hogeschool Limburg Unibertsitatean. Hasselt hiritik etorri zen, Flandes, Belgikatik.

